

Krisiaren irtenbidea **feminista** izango da!



**SISTEMA
PÚBLICO DE
CUIDADOS,
¡UNIVERSAL
Y
GRATUITO!**

#BizitzaBurrutabeaEskubideCruz

PUBLIKOA,
FUNTSEKOA ZAINDU
ABERASTASUNA BANATUZ
plimote la vida



**ZERGA
ERREFORMA,
KRISIA**

ELA

EUSKAL SINDIKATUA

Krisiaren irtenbidea feminista izango da!

SARRERA

Egun bizi dugun krisi sistemiko honi benetako irteera bat emateko ELAren proposamen politiko eta neurri zehatzak plazaratu ditugu. Ondoren aurkezten dugun dokumentu honen helburuetariko bat, egiturazko analisi makroak esparru mikroarekin eta neurri zehatzekin elkar elikatzen jarraitzea da; eta era berean, kontrabotere indar feministen aliantzan lagundu sindikalismo feministatik gure ekarpena eginez.

Ekonomiaren ikuspegi produktibo, merkantilizatu eta espekulatibo batetik zaintzak, bizitzak eta ingurumena lehenetsiko dituen ekonomia kritiko feminista eta ekologista bateranzko eraldaketa ezinbestekotzat jotzen dugu, krisiaren irtenbidea feminista izango bada.

Langile klasea ez da homoginoa; klaseaz gain beste kategoria batzuk ere gurutzatzen baikaituzte, besteak beste generoak, arrazak... Honela, gobernuek hartzen dituzten erabakiek inpaktu desberdinak dituzte herritarren eta gehiengo sozialen artean: ez da berdina gizonetzko langile zuri bat edota emakume langile, beltz, trans edota aniztasun funtzionala duen batentzat, adibidez. Eta noski, sistema kapitalista, heteropatriarkal, arrazista eta ekozida honetan badakigu noren begirada eta interesetatik hartzen diren erabakiak.

Zentzu honetan, jada ikusten ari gara krisi honen irteerarako planteatzen ari diren neurriak 2008ko krisian hartutako norabide neoliberal berdinean kokatzen gaituztela: austeritate politikak, zerbitzu publikoetan murrizketak, zerga politikan aldaketarik ez...

Orain dela hamarkada bat aplikaturiko errezeta berdina errepikatuz gero badakigu zeintzuk izango diren ondorioak: pobrezia eta prekaritatearen feminizazioa areagotzea; genero rolen berrindartzea; indarkeria sexista, arrazista edota LGTBIfobikoak sendotzea; denbora, lan eta aberastasunaren gero eta banaketa bidegabeagoa... Eta zein lan mota edo sektoreen erreskateak lehenetsiko dira? Covid-19ak hain agerian utzi dituen eta hainbeste txalotu diren bizitzarako funtsezko eta ezinbestekoak diren lan horiek edukiko al dute beharrezkoa den aitortza sozial eta ekonomikoa?

Krisiari emango zaion irtenbidearen norabidea erabakitzen ari den honetan, ezinbestekotzat jotzen dugu krisiaren irtenbidea feminista izateko neurri eta alternatibak mahai gaineratzea erabakiak baldintzatzeko, era berean indar kolektiboak eraikiz. Horretarako, lehentasunak aldatzea ezinbestekoa izango da pertsonen eta planetaren beharrak kapitalaren interesen gainetik jarritz, bizitzak eta zaintzak politika publikoen erdigunean kokatuz, bereziki egoera zaurgarrienean daudenen bizitzak: sistema kapitalista, heteropatriarkal eta arrazista honek gogorren kolpatzen dituen kolektibo horien bizitzak.

IRTENBIDE FEMINISTARAKO PROPOSATZEN DITUGUN NEURRIAK

Bizitzeko behar materialak bete: diru-sarrera nahikoak eta etxebizitza eskubidea bermatu

Krisi garaietan zein krisi garaietatik kanpo, emakumeok lanaren eta bizitzaren prekarietateari aurre egin behar izaten diogu gainzama bereziarekin lanaren banaketa sexualak markaturiko legez, bai lantoki zein etxeetan.

Feminismoak aspaldi erakutsi zigun lana ez dela soilik enplegua, eta etxekoa, doakoa eta inongo errekonozimendu sozial eta ekonomikorik gabea emakumeok egiten dugula hein handi batean. Eta



ela.eus



ELA
EUSKAL SINDIKATUA

lan merkatu formalean ere, sexuaren araberako zatiketak eragin zuzena duela jardunaldiaren partzialtasunaren, kontratuen behin behinekotasunaren eta azken finean prekaritatearen feminizazioan. Lan merkatuari dagokionez, beraz, uste dugu kalitatezko enpleguak izatea eta exijitza ezinbestekoa dela emakumeok gure oinarrizko bizi baldintzak eta behar materialak ase ditzagun.

Ezinbestekoa da bizitza duinak bermatuko dituen gutxieneko diru sarrera bermatuak izatea, bai gutxieneko soldatari, prestazio sozialei, baita pentsioei dagokienez ere. Egiturazko genero (baina baita arraza, klase...) arrakalei eta aurretik aipaturiko pobrezia eta prekaritatearen feminizazioari aurre egiteko ezinbesteko faktorea baita.

Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) jasotzen duen gehiengoa emakumeak dira, hain zuzen ere, sarri familia monomarentalak osatzen dituzten emakumeak. DSBE prestazioa handitzeak, beraz, aberastasunaren banaketa justuago bat ekarriko luke genero ikuspegitik.

Pentsioak prestazio kontributiboak dira, hau da, bizitzan zehar egindako lan produktiboari zuzenean lotua dagoen prestazioa, horren araberakoa baita. Enpleguan genero ikuspegitik ditugun arrakala guztiak kontuan izanik (soldata arrakala, jardunaldi mota generoaren arabera-partzialtasuna, aldi baterakotasuna, prekaritatearen feminizazioa, gizonen zaintza lanarekiko erantzunkidetasun falta...), ez da harrizkoa pentsioa jasotzeko garaia iristean emakumeak egoera tamalgarrian edota zuzenean pentsio sistematik kanpo kokatzea. Pentsio arrakala %40koa da.

Honetaz gain, aipatu beharra dago pentsio sistema enpleguaren araberakoa izateaz gain, familia nuklear eredubakarra eta "breadwinner" eredu hartzen dituela kontuan oraindik ere prestazio hau kalkulatzeko garaian, eta horren adibide dugu alarguntasun pentsio eskasa. Hau da, eskubide subjektibo izatetik urrun, prestazio honen zimenduak estruktura heteropatriarkal sendoak osatzen ditu.

Hona hemen gure eskaera zehatzak gutxieneko diru sarrerari dagokionez:

- 1.200 euroko gutxieneko soldata.
- Covid-19aren ondoriozko ERTEetan soldatak %100eraino osatu.
- Gizon eta emakumeen arteko soldata arrakala gainditu, maskulinizatutako eta feminizatutako sektore baliokideetan ematen diren soldata arrakalak ezabatuz (esaterako kale garbikuntza/lokeletako garbikuntza), edota gehienbat emakumeei inposatzen zaien lanaldi partzialeko enplegua lanaldira osora pasatuz.
- Pentsioak hileko 1.080 euroraino osatu, honela gizon eta emakumeen arteko pentsio arrakala murriztuz.
- Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) eta Errenta Bermatuaren (EB) zenbatekoa Lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS)aren %100arekin parekatu (1.108 euro, 12 pagatan) bakarrik bizi direnentzat; %50 gehitu bizikidetzaren unitateko kide bakoitzeko.
- LGS adineko gutxieneko diru-sarrerak bermatu langabe guztiei. Honek pertsona bakoitzarentzat gutxieneko diru sarrera indibidualak bermatuko lituzke, ez familia unitatearen araberakoak.
- Alokairu sozialeko etxebizitza bat eta oinarrizko ondasunak izateko eskubide subjektiboa bermatu. Alokairuaren prezioa mugatu. Emakumeok gara (areago monomarentalak, arrazializatuak...) pobrezia egoeran gaudenak (etxegabetzeen inguruko datuak ere ondo leudeke), eta beraz, etxebizitza bat izateko aukera zailtzen zaigunak.



Bizitza zein zaintza erdigunean kokatu

Covid-19ak oso agerian utzi du zeintzuk diren bizitzaren sostengagarritasunerako funtsezkoak diren lanak, gelditu ezin direnak: zaintzak, osasuna, elikagaiak, garbikuntza... Baina bestetik, ikusten dugu lan hauek direla ikusezinenak, gutxien baloratzen direnak, prekarizatuen daudenak, asko pribatizatuta edota emakumeok alor pribatuan eta doan edota batzuetan esklabutza baldintzetan eginak... Zergatik? Lan feminizatuak direlako, askotan gainera emakume arrazializatuen gain geratzen direnak, inposatu diguten lanaren banaketa sexual horren baitan emakumeoi egotzi zaizkigun eta historikoki modu ikusezinean eta doan egin ditugun lanak direlako.

Bizitzak erdigunean kokatzeko, eta zaintza lanek izan beharko luketen zentralidadea aitortzeko helburuarekin, honako neurri zehatzak proposatzen ditugu:

- Gizarte Zerbitzuei buruzko legeetan eskubide subjektiboa aitortu mendekotasun egoera guztiak sistema publiko, unibertsal, doako eta kalitatezko baten estaldura izan dezaten (ez errepikatzea aurreko mendekotasun-legearekin gertatu zena eta laguntza horrekin etxera itzultzeak emakume askorentzat ekarri zuen tranpa...) Horrela, jaiotzen garenetik hiltzen garen arte bizi ditugun dependentzia egoera guztien estaldura bermatua. Esaterako 0 eta 3 urte artean irakaskuntza publiko eta doakoa bermatzea exijitzen dugu, edota zahartzen garenean artatuko gaituen zerbitzu publiko eta kalitatezkoak bermatuta izatea. Neurri hauek emakumeongan inpaktu zuzena izango lukete. Izan ere, gu gara zaintzen dugunak baina baita zainduak ere, helduen kasuan bakarrik dauden pertsona heldu dependiente gehienak emakumeak baitira.
- Etxeko langileen eskubideak parekatu gainerako langileek dituztenekiko (gizarte segurantzako erregimen orokorra, langileen estatutua eta lan osasunari dagokienez).
- Atzerritartasun legea bertan behera utzi; pertsona guztien erregularizazio administratiborantz jo, erroldatzeko aukera bermatuz. Izan ere, modu irregularrean lanean egoteak injustizia eta esplotazioa jasateko aukerak biderkatu egiten ditu (esaterako erregularizatu gabeko etxeko langileak). Beharrezkoa eta urgentziazkoa da langile hauen erregularizazioa, oinarrizko giza eskubideen aitortzaz gain suposatuko lukeen diru-ekarpen publiko guztiarekin.
- Lanaldia gutxienez 35 ordura murriztea exijitzen dugu. Zaintzaren erantzunkidetasuna bultzatuko duen neurri garrantzitsua litzateke lanpostu gehiago sortzeko aukerarekin batera.
- Kontziliazio eskubiderako neurri legalak areagotu, besteak beste:
 - ➔ Zaintzagatik jardunaldia murriztu edota eszedentzia hartzerakoan langabezia jasotzeko eskubidea edo pareko prestazio bat aitortzea.
 - ➔ Jardunaldia malgutu, murriztu edota eszedentzia hartzeko eskubidean adin txikikoen adin muga 18 urtera luzatzea.
- Etxean egin beharreko lanetan denbora berrantolatu eta erantzukidetasunez jokatu. Nahiz eta lantoki zein hitzarmenetan geroz eta kontziliazio neurri gehiago onartuta egon, emakumeok gara oraindik ere horien erabilera egiten dugunak maila askoz handiago batean. Gizonek pauso bat eman behar dute aurrera zentzu honetan denboraren eta lanaren banaketa justuago bat lortu nahi badugu.



Arlo publikoa sendotu

Koronabirusak ekarri digun ikasgai argienetako bat da zerbitzu publikoak indartzearen beharra. Urtetan zehar publikoa gutxietsi den arren eta pribatuak hobeto funtzionatzen duela saldu diguten arren, bizi dugun bezalako egoera batetan ikusten dugu erantzuten duena publikoa dela. Baina baita sistema publikoa ez zegoela horretarako prestatuta ere. Ezin ahaztu azken urteetan izandako murrizketak. Horren ondorioz, adibidez, topo egin dugu osasun sistema batekin zein egoera okerragoan eta baliabide gutxiagorekin zegoen, eta non prekaritatea orokortuta dagoen. Baina berdina esan dezakegu, edo are gehiago zaintzen, hezkuntzaren... inguruan. Zer esanik ez, pribatizatuta dauden azpikontraten kasuan edota lan merkatu formaletik at geratzen diren zerbitzuen kasuan (erresidentziak, etxez etxeko laguntza, garbikuntza, etxeko langileak...). Ikusten dugu nola, bizitzarako funtsezkoak diren lan sektore hauetan ere, negozioa eta etekinak lehenesten diren zaintzarako eskubide unibertsal baten gainetik. Alegia, sistema bat zeinak zaintzaile eta zainduen eskubideak bermatuko dituen, eta non osagarria izango den zainduak izateko eskubidea eta zaintzaileen lan-eskubideen bermea.

Beraz, irteera justu bat nahi badugu ezinbestekoa da zerbitzu publikoak indartzea merkantilizazio eta familiarizazio mailak jaisteko. Baita kontziliaziotik erantzukidetasun sozialerako saltoa ematea, hein handi batean emakumeok bilatutako intenbide pribatuetatik ardura kolektibo eta publikoetara.

Izan ere, zerbitzu publikoak indartuz gero, jendartearen eta bizitzen merkantilizazio eta familiarizazio maila jaitsi egingo da. Maila publikoan egiten ez dena esku pribatuetan edota familien eskuetan (emakumeengan batez ere) jartzen da, genero arrakalak nabarmendu egiten direlarik: enpresa pribatuetan geroz eta lan-indar prekarizatu eta feminizatuagoaren bidez, zein etxeetan dohainik edo sarri ordaindutako baina berme/kontraturik gabeko lanaren bitartez, bizitza sostengatuz baina errekonozimendu sozial, politiko eta ekonomikorik gabe. Sistemaren merkantilizazio zein familiarizazio maila jaisteko, sektore publikoa sendotu beharra dugu.

Horretarako neurri zehatz batzuk proposatzen ditugu:

- Dependentzia egoerak kubritzeko zaintza sistema publiko, unibertsal eta doakora bidean administrazioek 10.000 lanpostu sortzea.
- Hiru urteko epean osasunean eta hezkuntzan Europako batez besteko mailarekiko dagoen defizita gaintitu.
- 0- 3 urte arteko hezkuntza doan.
- EAEko eta Nafarroako administrazioetan aldi baterako kontratua duten langile guztien enplegua finkatu. Administrazioan ere, behin behinekotasunak eta prekaritateak emakume aurpegia dauka, gero eta sektore feminizatuagoa izanik gorantz egiten baitute biek.
- Sektore azpikontratatuak publikatu: zahar-etxeak, etxez etxeko arreta, anbulantziak, garbitasuna... subrogazioa eta enplegu finkatua bermatuz. Azpikontratatuako sektore hauetan emakumeak dira nagusi, ez da kasualitatea. Gainera, soldata arrakala bultzatu dute administrazioek pribatizazio hauekin.

Guzti hau lortzeko, noski, diru-sarrera publikoak handitu behar ditugu. Baina nola egingo dugu hau? Proposatzen dugun fiskalitatearen eraldaketaren bidez.



Sarrera publikoak handitu: zerga-sistemaren eraldaketa

Aberastasunaren banaketa parekide eta justuagoa helburu duen **zerga-sistemaren eraldaketa** eskatzen dugunean, emakumeen bizitzengan eragin positibo zuzena daukalako ere eskatzen dugu. Zeren eta Arlo publikoa diru sarreraz hornitu, eta horiek aurrekontu sozial, feminista, ekologiko, parte-hartzaile eta justuagoak bilakatuz gero, klase zein genero arteko aberastasunaren banaketa justuago bat gauzatuko da. Horretarako ezinbestekoa da, diru sarrerei dagokionez, **zerga-erreforma** nabarmenak egitea, aberatsek eta kapitalak gehiago ordain dezaten eta gastuari dagokionez, Europatik inposatu eta gure instituzioek ontzat ematen dituzten aurrekontuen markoarekin (gastu araua...) haustea, gastua gastu sozialera bideratzearekin batera (eta ez azpiegitura handi eta txikitzaileetara edota bankuen erreskatara).

Helburu honekin, ELAtik ondare aberastasun eta fortuna handien gaineko zerga modu progresiboan handitzea eskatzen dugu %1 eta %10 artean egongo den errekaru espezifiko baten bidez, edota Sozietateen Zergako aitortpenean etekinek %20ko errekaru berezia ezarriz, besteak beste.

ITXIERA

Proposamen honen bidez, ELA sindikatuak bizitzak erdigunera ekartzeko bidean eman beharreko pauso batzuk proposatu ditu. Badakigu helburu hori lortzeko beste hainbat eraldaketa ere eman behar direla, eta horretarako ezinbestekoa izango dela beste mugimendu eta eragileekin aliantzak gehitu eta saretzea.

Hemen proposatzen ditugunak, sindikalgintza feminista eraikitze-deseraikitze prozesuan gaudela, teoria eta praktika honetatik sortutako aldarrikapen eta proposamenak dira, baita eragile eta mugimendu eraldatzaileekin elkar elikatu eta gure arteko artikulazioetan sakontzeko asmoarekin eginak ere.

Honela, dokumentu honen bidez bizitzak erdigunera ekartzeko gure ustez bidea dena azaleratu nahi izan dugu honako pausoak jarraituz: pertsona guztien behar materialak asetuz, zaintza lanei aitortza sozial eta ekonomikoa eginez, zaindua eta zaintzailearen eskubide subjektiboak zainduz eta zaintzen sistema publiko eta unibertsala ezarriz, eta hau guztia lortzeko ezinbestekoa da arlo publikoa diru-sarreraz hornitzea zerga-erreforma progresibo baten bidez: kapitalak dagokiona ordain dezala.

Guzti hau lortzeko bidean, gure aldetik negoziazio kolektibo feminista eraikitzen jarraituko dugu, emakumeen behar praktiko eta interes estrategikoak artikulatuz. Izan ere, azken urteetako greba sindikal eta feministek erakutsi digute antolakuntza, borroka eta greba tresna beraren beharra ahalduz prozesuak sortu eta emakume langileen lan eta bizi baldintzak eraldatzeko.

Beraz, krisiaren irtenbidea feminista izango da edo ez da izango. Betiko errezetek ez dute balio, historiak berak erakusten digun bezalaxe. Emakumeok ondo dakigu hori, eta botere faktikoak eta kapitalak bizitzaren kontra doazen neurriak hartzen hasi badira ere, kontrabotere indarrentzat bide berriak irekitzen ari dira. Sindikalismo feminista ere hor egongo da, proposamenetan, eta batez ere, praktiketan.

¡La salida de la crisis será feminista!



**SISTEMA
PÚBLICO DE
CUIDADOS,
¡UNIVERSAL
Y
GRATUITO!**

#BizitzaBurrutabeaEskubideCruz

PUBLIKOA,
FUNTSEKOA ZAINDU
ABERASTASUNA BANATUZ
plimote la vida



**ZERGA
ERREFORMA,
KRISIA**

ELA

EUSKAL SINDIKATUA

¡La salida de la crisis será feminista!

INTRODUCCIÓN

Desde ELA hemos propuesto medidas concretas con el fin de dar una salida a la crisis sistémica que estamos viviendo. Uno de los objetivos del documento que presentamos a continuación es, retroalimentar los análisis macros estructurales con el análisis micro de la realidad y aportar medidas concretas. Así, queremos por un lado, seguir ahondando en la lectura y las propuestas feministas frente a la crisis, y por otra parte, profundizar en la alianza de las fuerzas feministas de contrapoder, siempre haciendo nuestra aportación desde el sindicalismo feminista.

Vemos primordial e imprescindible hacer camino hacia un modelo económico feminista y ecologista, que ponga las vidas, los cuidados y el medio ambiente en el centro, dejando atrás la visión productivista, mercantilizada y especulativa que suele prevalecer en los marcos económicos dominantes.

Por otra parte, tenemos presente que la clase trabajadora no es homogénea, ya que además de la clase también nos atraviesan otras categorías así como el género o la raza, entre otras. Las decisiones que toman los gobiernos tienen diferentes impactos entre la ciudadanía y las mayorías sociales: no es lo mismo ser un hombre blanco trabajador que una mujer trabajadora, negra, trans o con diversidad funcional, por ejemplo. Y naturalmente, ya sabemos desde dónde y en base a los intereses de quiénes se toman las decisiones en este sistema capitalista, heteropatriarcal, racista y ecocida.

En este sentido, ya hemos empezado a ver que las medidas que se están planteando hoy en día para salir de esta crisis responden al mismo modelo de ruta neoliberal que se siguió en 2008: políticas de austeridad, recortes de los servicios públicos mientras no se toca la fiscalidad...

Y es que ya sabemos qué repercusiones tendría la aplicación de las mismas recetas de hace una década: la pobreza y la precariedad serán cada vez más feminizadas, se reforzarán los roles de género y también la violencia machista, LGTBI-fóbica y racista, se hará un reparto más injusto del tiempo, el trabajo y la riqueza... Y además de esto, ¿qué tipos de trabajos o sectores serán tomados como prioritarios para su rescate? ¿Serán reconocidos social y económicamente los tan aplaudidos sectores que durante el Covid19 mostraron ser esenciales para la vida?

Esta es una ocasión en la que puede ser decisivo plantear una salida alternativa a la crisis, y por eso pensamos que es primordial poner sobre la mesa propuestas de alternativas feministas reforzando al mismo tiempo el contrapoder colectivo. Para este fin, será imprescindible mover prioridades de lugar poniendo las necesidades de las personas y del planeta por encima de los intereses del capital, colocando las vidas y los cuidados en el centro de la política pública, y sobre todo, trayendo al centro del tablero las vidas de las personas en situación más vulnerable, a los colectivos que más golpea este sistema capitalista, heteropatriarcal y racista en el que vivimos.

PROPUESTAS PARA UNA SALIDA FEMINISTA DE LA CRISIS

Satisfacer las necesidades materiales: garantizar unos ingresos suficientes y el derecho a la vivienda



ela.eus



ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Tanto en épocas de crisis como fuera de ellas, somos las mujeres las que solemos tener que acarrearnos en mayor medida el peso de la precarización del trabajo y de la vida tanto en los centros de trabajo como en los hogares debido a los mandatos de la división sexual del trabajo.

Hace tiempo que el feminismo nos enseñó que el trabajo no es solo empleo, y que el trabajo que se realiza en el ámbito del hogar sin ningún reconocimiento social y económico lo realizamos en su mayoría las mujeres. En el mercado de trabajo formal también la división sexual del trabajo tiene una repercusión directa en las condiciones laborales de las mujeres, que se traduce en jornadas parciales, mayor temporalidad, menor sueldo y en definitiva, en precariedad laboral y de vida feminizada. Por ello creemos que es imprescindible exigir empleos de calidad para las mujeres, de cara a saciar nuestras necesidades materiales vitales y unas condiciones de vida dignas.

Es imprescindible tener garantizados unos ingresos que posibiliten sostener vidas dignas, tanto en cuanto a salarios como a prestaciones sociales y/o pensiones. Estos factores son cruciales a la hora de hacer frente a las brechas de género (pero también de raza, de clase...) y a la pobreza y precariedad feminizadas mencionadas anteriormente.

La mayoría de beneficiarias de la Renta de Garantía de Ingresos (RGI) son mujeres, conformando muchas de ellas familias monomarentales. Por eso, un aumento en la cuantía de la RGI también acarrearía un reparto de la riqueza más justo desde la perspectiva de género.

Las pensiones son prestaciones contributivas, es decir, son un derecho que se genera a partir del denominado trabajo "productivo". Teniendo en cuenta las múltiples brechas de género que existen en el mercado laboral (brecha salarial, parcialidad y temporalidad feminizada, precarización, falta de corresponsabilidad por parte de los hombres...) no es de extrañar que, a la hora de recibir la pensión, las mujeres nos encontremos en situación de clara desventaja o, incluso, directamente fuera del sistema de pensiones. Y es que la brecha de género en las pensiones es del 40%.

Además de todo ello, hay que mencionar que el sistema de pensiones, además de estar basado en el empleo regular y remunerado, también tiene como referencia un modelo de familia nuclear y patriarcal, que tiene en cuenta el modelo de "ganador de pan" o *breadwinner* a la hora de calcular la prestación. Claro ejemplo de esto es la escasa pensión de viudedad que perciben mayoritariamente las mujeres respondiendo al citado esquema. Lo que queremos decir es que, lejos de ser un derecho subjetivo, esta prestación está basada en una estructura radicalmente heteropatriarcal.

Con todo, presentamos a continuación, una batería de medidas concretas de cara a cubrir las necesidades materiales de todas las personas:

- Fijar el salario mínimo en 1.200 euros.
- En los ERTes por Covid-19, que los salarios se complementen hasta el 100%.
- Superar la brecha salarial entre mujeres y hombres, eliminando las brechas existentes entre sectores feminizados y masculinizados equivalentes (por ejemplo, limpieza de exteriores/limpieza de locales), y transformando las jornadas parciales que se imponen a las mujeres en jornadas completas.
- Complementar las pensiones inferiores hasta los 1.080 euros, reduciendo así la brecha existente en las pensiones.
- Igualar la Renta de Garantía de Ingresos (RGI) y la Renta Garantizada (RG) con el 100% del Salario Mínimo Interprofesional (SMI) (1.108 euros en 12 pagas) para las personas que viven solas, sumando un 50% por cada conviviente.



- Garantizar unos ingresos equivalentes al SMI a todas las personas desempleadas. Esto garantizaría unos ingresos mínimos individuales para cada persona, y no en base a la unidad convivencial.
- Garantizar el derecho a una vivienda de alquiler social y limitar el precio del alquiler, en general. Son en mayor medida mujeres las que sufren situaciones de pobreza y por lo tanto, las que tienen más complicado el acceso a una vivienda.

Poner la vida y los cuidados en el centro

El Covid-19 ha puesto claramente de manifiesto cuáles son los trabajos esenciales para el sostenimiento de la vida, y por lo tanto, los que no se pueden parar: trabajos de cuidado, la sanidad, el sector de la alimentación, la limpieza... Por otro lado, en cambio, vemos que estos trabajos son los más invisibilizados, menos valorados y más precarizados. Muchos de ellos, de hecho, están privatizados y muchas otras veces son llevados a cabo por mujeres en el ámbito del hogar, en ocasiones incluso en condiciones de esclavitud. ¿Por qué pasa esto? Porque son trabajos feminizados, en muchas ocasiones realizados por mujeres racializadas, y porque responden a la imposición de la división sexual del trabajo.

A continuación, proponemos medidas concretas para poner las vidas en el centro, así como para dar la centralidad que deberían tener a los trabajos de cuidados:

- Que en las leyes de servicios sociales se reconozca el derecho subjetivo a la atención de la dependencia que sea cubierto mediante un sistema público, universal, gratuito y de calidad (que no se repita lo que pasó con la anterior ley de dependencia, que fue una trampa para muchas mujeres que tuvieron que cargar con el trabajo de cuidados). De este modo, pretendemos que se atiendan todas las situaciones de dependencia por las que pasamos a lo largo de nuestras vidas. Exigimos, por ejemplo, que el sistema educativo cubra de manera pública y gratuita la etapa de 0 a 3 años, o unos servicios públicos que nos atiendan como es debido cuando nos encontremos en la vejez. Estas medidas tendrían un gran impacto en las vidas de las mujeres, ya que nosotras somos tanto las que cuidamos como las que somos cuidadas. Y es que la mayoría de las personas dependientes de la tercera edad que viven solas son mujeres.
- Equiparar las condiciones laborales de las trabajadoras del hogar con las de los y las demás trabajadoras (régimen general de la Seguridad Social, Estatuto de los Trabajadores e igualdad en salud laboral).
- Derogar la ley de Extranjería: caminar hacia la regularización administrativa de todas las personas, garantizando la posibilidad de empadronamiento. Y es que el estar trabajando de manera irregular multiplica las posibilidades de sufrir explotación e injusticias (como por ejemplo en el caso de las trabajadoras del hogar sin regularizar). Es necesario y de urgencia la regularización de estas trabajadoras ya que, además del reconocimiento de sus derechos humanos básicos, esta medida supondría un aumento de ingresos a las arcas públicas.
- Exigimos que la jornada laboral disminuya a, por lo menos, 35 horas semanales. Esto, además de impulsar la corresponsabilidad del cuidado, también ayudaría a crear más puestos de trabajo.
- Aumentar y mejorar los permisos legales de conciliación:



- ➔ Reconocer el derecho al desempleo u otra prestación equivalente en los casos en los que se reduzca la jornada o se coja una excedencia por cuidados.
- ➔ Aumentar el límite de edad hasta los 18 años, en el derecho de acogerse a medidas de conciliación por cuidado de menores, tanto en el caso de la flexibilización o reducción de la jornada como en caso de excedencia.
- Reorganización del tiempo y corresponsabilidad en los trabajos domésticos y del ámbito del hogar. Aunque vemos que en los convenios cada vez se van reconociendo más derechos de conciliación, todavía somos las mujeres sobre todo quienes hacemos un mayor uso de los mismos. Los hombres deben dar un paso adelante en este sentido, si queremos conseguir un reparto del tiempo y del trabajo más justo.

Fortalecer el sector público

Una de las lecciones pendientes más claras que nos ha puesto el Coronavirus encima de la mesa es la necesidad de reforzar los servicios públicos. Aunque a lo largo de los últimos años el sector público ha sido despreciado y se nos ha vendido la idea de que el sector privado funcionaba mejor, en una situación como la que hemos vivido en los últimos meses hemos comprobado que era el sector público quien ha respondido y responde a la hora de la verdad. Así mismo, hemos visto que el sistema público no estaba preparado para tamaños retos.

No podemos olvidar, en este sentido, los recortes llevados a cabo a lo largo de los últimos años. Todo ello nos ha llevado a encontrarnos, por ejemplo, con un sistema sanitario en peor situación, con menos recursos, y en donde la precariedad laboral es generalizada. Podemos decir lo mismo, o enfatizar más aún, en el caso de los cuidados o la educación... Por no hablar de las empresas privadas subcontratadas o servicios privados subcontratados por la administración pública (residencias, ayuda a domicilio, la limpieza, o el caso de las empleadas de hogar, gran parte de las cuales quedan fuera del mercado laboral formal). En estos sectores de trabajo, claves para la vida, sigue primando el negocio y los beneficios sobre el derecho universal al cuidado; es decir, un sistema que garantice los derechos de las personas cuidadoras y las personas cuidadas, un derecho en el que se complemente el derecho a ser cuidadas con la garantía de los derechos laborales de las personas-trabajadoras cuidadoras.

Por tanto, si queremos una salida justa a la crisis es necesario reforzar los servicios públicos para reducir los niveles de mercantilización y familiarización. Y dar el salto de la conciliación a la corresponsabilidad social, una corresponsabilidad social que vaya más allá de las salidas privadas e individuales buscadas mayoritariamente por las mujeres hacia una corresponsabilidad pública y colectiva.

De hecho, el reforzamiento de los servicios públicos reduciría el grado de mercantilización y familiarización de la sociedad y de las vidas. En general, lo que no se realiza en el ámbito público pasa a manos privadas o a manos de las familias (sobre todo a manos de las mujeres), reforzando las brechas estructurales de género: en las empresas privadas con una fuerza de trabajo cada vez más precarizada y feminizada; brechas de género en los hogares debido a la realización de trabajos de forma gratuita por parte de las mujeres o a través del empleo de hogar sin garantías ni contratos en muchos casos; el cuidado de la vida, pero sin reconocimiento social, político y económico alguno. Así, por tanto, es necesario fortalecer el sector público para reducir el grado de mercantilización y familiarización del sistema.



Para ello proponemos una serie de medidas concretas:

- Creación de 10.000 puestos de trabajo por parte de las administraciones para crear un sistema público, universal y gratuito de cuidado que recoja las distintas situaciones y realidades de dependencia.
- Superar en un plazo de tres años el déficit existente en sanidad y educación respecto al promedio europeo.
- Educación gratuita de 0 a 3 años.
- Consolidar el empleo de todo el personal con contrato temporal en las administraciones de la CAPV y Navarra, teniendo en cuenta que en la administración la temporalidad y la precariedad tienen rostro de mujer.
- Publicación de sectores subcontratados: residencias, ayuda a domicilio, ambulancias, limpieza... garantizando la subrogación y la consolidación del empleo. No es casualidad que en estos sectores subcontratados predominen las mujeres. Además, a través de estas privatizaciones y bajo el esquema de la división sexual del trabajo, las administraciones públicas han fomentado la brecha salarial, por ejemplo.
- Para conseguir todo esto es necesario aumentar los ingresos públicos. ¿Pero cómo lo vamos a hacer? A través de la reforma fiscal que proponemos, entre otros:

Aumento de ingresos públicos: transformación del sistema fiscal

Cuando exigimos la transformación de un sistema fiscal que busca una distribución más equitativa y justa de la riqueza, también lo hacemos porque ello tiene una incidencia positiva directa en las vidas de las mujeres. Porque dotar al Sector Público de ingresos y convertirlos en presupuestos más sociales, feministas, ecológicos, participativos y, en definitiva, más justos, permitirá llevar a cabo un reparto más equitativo de la riqueza en términos de clase y de género. Para ello es imprescindible llevar a cabo importantes reformas fiscales en cuanto a los ingresos, con el fin de que los ricos y el capital paguen más dinero y, en cuanto al gasto, romper con el marco presupuestario impuesto desde Europa y asumido por nuestras instituciones (regla de gasto...), al tiempo que destinar el gasto al gasto social (y no a grandes y destructivas infraestructuras o al rescate bancario).

Con este objetivo, desde ELA solicitamos un aumento progresivo del impuesto sobre las grandes fortunas y riqueza patrimonial mediante un recargo específico de entre el 1% y el 10%, o un recargo especial del 20% en la declaración del Impuesto de Sociedades, entre otros.

CIERRE

Con este documento, desde el sindicato ELA hemos querido proponer una serie de pasos a seguir en los intentos de colocar a la vida en el centro, no solo en el discurso, sino también a través de una serie de medidas concretas y operativas. Somos conscientes de que para poner la vida en el centro hacen falta otras muchas transformaciones a distintos niveles, por lo que reconocemos la necesidad de seguir profundizando en las alianzas con los distintos movimientos y agentes de transformación social con los que compartimos objetivos.

Estas propuestas derivan de la teoría y práctica de un sindicalismo feminista en constante proceso de construcción-deconstrucción. Un sindicalismo feminista que busca, a su vez, el encuentro y la

articulación con otros colectivos, organizaciones y movimientos con los que comparte necesidades, intereses y objetivos.

De este modo, y de manera sintética, proponemos los siguientes pasos en aras a marcar un posible camino que ponga las vidas en el centro: la satisfacción de las necesidades materiales de todas las personas haciendo un reconocimiento social y económico a las tareas de cuidado, cuidando a su vez los derechos subjetivos de la persona cuidadora y la persona cuidada, así como estableciendo un sistema público y universal de cuidado. Para ello es imprescindible proveer de ingresos al sector público mediante una reforma fiscal progresiva: que el capital pague lo que le corresponde.

Por nuestra parte, seguiremos construyendo una negociación colectiva feminista, articulando las necesidades prácticas e intereses estratégicos de las mujeres. Y es que las huelgas sindicales y feministas de los últimos años nos han enseñado que la organización y la lucha son instrumentos imprescindibles que crean procesos de empoderamiento personales y colectivos que transforman las condiciones laborales y de vida de las mujeres trabajadoras.

La salida a la crisis será o no feminista. Las recetas de siempre no sirven, como nos muestra la propia historia. Las mujeres lo sabemos muy bien, y aunque los poderes fácticos y el gran capital han empezado a tomar medidas que van en contra de la vida, se abren nuevos caminos para las fuerzas de contrapoder. Desde el sindicalismo feminista estaremos presentes también en esta lucha, ya sea desde el plano teórico y sobre todo, desde la práctica.

